

ARAMA ZAITEZ

2.zenbakia

2014ko apirila

ARAMAKO BERRIEN BOLETINA



AURKEZPENA

Agindutakoak bete asmoz hemen gatoz, Arama Zaitetz herri boletinaren 2.alearekin. Jakitun gara, hobetzen badugula makina bat lan eta lehenengo alean eginiko akatsak ez errepikatzen saiatuko gara, horretan jarriko dugu gure asmoa eta nahia, ea oraingo honetan emaitza txukuna lortzen dugun.

Ale honetan udalaren eta herriko bizitzan azken bi hilabetetan gertatutakoak jasotzen saiatuko gara. Barruko orrietan zabalago azalduko baditugu ere, Aramako Udal Liburutegia martxan daukagu dagoeneko, ez daukagu irakurtzen has-teko aitzakiarik. Bestetik udal artxiboa ere antolatu dugu eta ordenan ditugu herriko paper eta espedienteak. Herriko plazako zoruan burutu beharreko lanak ere burutu dira, eragozpen handirik ez sortu izana espero dugu. Autobus zerbitzua hobetzeko asmotan aurrera atera den proiektua ere aurkeztu diegu herritarrei, baliagarri izatea espero dugu. Ta urtero legez, ogasunaren aurrean errenta aitortpena egiteko unea iritsi da, euskaldunok erabil dezagun gure hizkuntza egiteko honetan ere.

Ta azkenik baina ez horregatik garrantzi txikiagoz, gure esku dago+ ekimenaren berri eman nahi dizuegu, herritarrek erabakitzeko eskubidearen alde saretutako ekimena da eta ekainaren 8an dugu giza kate erraldoia gauzatzeko egun seinalatua, Aramarrok ere zuen alea jartzera gonbidatzen zaituztegu. Honetaz gain, baratza egutegia, errezeta, gaintatxota kultur elkartearen sorrera, agenda eta beste hainbat gai jorratuko ditugu.

Udako oporren aurretik 3. alearekin zuen etxeetan izatea espero dugu, bitarte horretan herriko gaiak biltzen eta jorratzen jarraituko dugu. Edozein ekarpen, artikulua, kexa edo iradokizun baduzu aramaudala@gmail.com helbidean aurkituko gaituzu.

Zuen gustukoa izatea espero dugu. On egin



AGENDA

Maiatzak 15: San Isidro baserritarren eguna

Ekainak 8: GURE ESKU DAGO+giza katea.

Ekainak 23: San Joan bezpera

Adi Í GURE ESKU DAGO Í ekimenei

ARTXIBOA EGUNERATZEKO LANAK

Aramako Udal artxiboan hainbat lan burutu dira azken aldian, baitetik Gipuzkoako Foru Aldundiaren bidez lorturiko diru-laguntza batez baliatuz Aramako artxiboan zeuden karpeta guztiak banan bana hartu eta errebisatzen aritu dira, dokumentu duplikatuak baztertu, grapak kendu, dokumentuak saneatu eta karpeta berrietan sartuz.

Artxibo historikoan egina zegoen lana bere horretan mantendu da. Bestetik Eusko Jaurlaritzaren Kultura sailaren laguntza bat baliatuz, artxibo teknikari baten bidez; Knosys izeneko aplikazioan klasifikatu ditu dokumentu guztiak eta Aramako artxiboaren inbentarioa egin du.

Gaur egungo artxiboa 315 kaxaz osatua dago, beste hainbat do-

kumentu artxibotik kanpo geratu dira baina aparteko artxibo batean botu gabe.

Ta azkenik, kaxa guzti hauek udaletxe zaharretik, udaletxe berriko artxibora ekarri dira.

Lan guzti hauen helburua, udalean garrantzia duten dokumentu guztiak egoera onean, eskura eta bilatzeko erraz egotea da.

Egindako lanaren kostua 16.477,40 euro izan da, eta jasotako laguntzak hauek izan dira:

Foru Aldundiak langilearen kontrataziorako 7.500 eurotako laguntza eman du

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak 7.968,50 eurotako laguntza eman du



HERRIAN AZKENALDIAN EGIN DIREN LANAK

Aurreko buletinean azaldu genuen moduan, Ibaresko zubiaren birgaitze lanetan aurrera darragu. Zubi hau XVII. Mendeko monumentu modura katalogatua dago, eta, bere garrantzi historikoaz gain, Ibares auzorako sarbide bakarra da. Urrian hasi ziren lanak, eta urte amaierarekin bukatzea espero ziren arren, ibaiaren zenbait unetako egoerak, eta, bertako izaera fisikoak, lanak atzeratzera eraman gaituen arren amaitu dituzte azkenean. Azken emaitza ikusita itzarotea espero zuelakoan gaude; ikusgarria izan da eduki duen eraldaketa.

Bestelakoan, udaletxe aurreko plazako zorua konpondu da, eta, kale nagusiko espaloian, zenbait guneeetan sortzen ziren ur putzuei soluzioa ematen saiatu gara.



AUTOBUS ZERBITZU BERRIA

Iragan apirilaren 1ean ospatu zen Aramako eta Alzagako herritarrekin, Foru Aldundiak, autobus zerbitzu berriaren harira antolaturiko batzarra. Bertan, Aldundiko teknikariek landuriko proposamena erakutsi eta azaldu zuten, herritarren ekarpenak jaso zituztelarik proposamen hau hobetzeko asmoz.

Autobus zerbitzu berri hau, 2015ko urtarrilean jarriko da martxan, eta, Aramako autobus lotura, hein handi batean, bermaturik geratuko litzateke, hasi goizeko 7:00tan eta, gaueko 20:30 bitartean, astelehenetik larunbatera, beste linea eta zerbitzuekin lotura eginaz, autobus zerbitzua aramara iritsiko litzateke-elarik.

Bertaratu ziren herritarrak gustura atera ziren proposamenarekin



ERRENTA KANPAINA EUSKARAZ

Ogasunarekin hitzordua izango dugu laster hainbat herritarrek errenta kanpaina irekitzeaz bai da, apirilaren 7an emango zaio hasiera hain zuzen ere. Euskaldun askok gure eguneroko bizitzako hizkuntza euskara badugu ere, hainbatetan administrazioarekin harremanetan jarri edo gai ofizialak esku artean ditugunean gaztelaniara jotzen dugu. Batzuetan euskara administratiboa ulertuko ez dugunaren beldurragatik, beste batzuetan herritarrari orain arte euskaraz egiteko aukera eskaini ez zaiolako.

Oraingo honetan ez dago aitzakiarik, errenta aitortpena euskaraz egin ahal izateko bide guztiak irekiak dituzu, auto-likidazio proposamena jasotzen baduzu, onartzerakoan esan euskaraz egin nahi duzula. Mekanizatua egiten baduzu hitzordua eskatzerakoan esan euskaraz egin nahi duzula eta internet bidez egiten baduzu jaitzi ezazu euskarazko aplikazioa.

Iazko urtean 117 errenta aitortpen egin ziren herrian eta 27 izan ziren soilik euskaraz eginikoak. Aurten erroka iazko datuak aisa gaintitza izango da. Galdu dezagun beldurra, gure eskubidea da euskaraz egitea, gure egitekoa da aukera hau baliatzea. Anima zaitetzte.

LIBURUTEGIA ETA KZ GUNEA




Pixkanaka bada ere Iriarte eraikina, zerbitzu eta ekipamenduz betetzen ari gara. Bigarren solairuan liburutegia eta KZgunea erabilgarri ditugu dagoeneko. Bertara sartzeko 16 urtez gorakoak txartel elektronikoz bidez izango dute sarbidea eta txikiagoek aldiz heldu baten laguntza beharko dute.

Liburutegia lekuz aldatzea, Aramako Liburutegia, Euskadiko Liburutegi Sisteman sartzeko baliatu dugu. Horretarako liburu guztiak katalogatu ditugu eta sarean sartu ditugu, horrek zer esan nahi du? Batetik, Aramako liburutegian zein liburu dauden zure etxetik bertatik kontsultatu ahal izango duzula eta bestetik Aramako Liburutegiko kide bazara, euskadiko liburutegi sarean sartuta dagoen beste edozein liburutegietatik liburuak hartu ahal izango dituzu (Ordizia, Beasain, Tolosa, Lazkao..). Gainera beste liburutegi batean dagoen liburu batetan interesa baduzu, guk geuk eskatu eta ekartzen dugu Liburutegi Arteko Mailegu Zerbitzua erabiliz.

Liburutegiko txartela eskuratu nahi baduzu, hurbil zaitetz udaletxera eta inprimaki bat bete behar duzu, egun gutxi barru liburutegiko txartela izango duzu 2" ren truke.

KZguneako zerbitzuari dagokionez, liburutegiko txartelarekin bertara sartu eta bertan ibili ahal izango zara. Inongo zalantzarik izango ezker KZguneako monitorearekin argitu ahal izan dituzu ondorengo bisita egunetan.



EREN

Babespean / Negutegiari: Porrua, erremolatxa gorria, azerorria, artxia, letxuga, apioa, rukula, rabarritoa, baina, babarruna, arttoa, kalabaza, kalabazina, aza, brokolia, azalorea, bruselako aza, lonbarda

LANDATU

Babespean / Negutegiari: Tomatea, piperra, berenjena, albahaka

Aire libreari: Azelga, letxuga, kalabazina, kalabaza, pepinoa, meloia, sandia, piperra, tomatea, berenjena, albahaka

Egun egokienak lan bakoitzerako:

- Fruitua:** tomatea, kalabaza piper, babarrun, hazitarakoak
- Sustraiak:** azenario, artxi, erremolatxa, patata, tipula
- Lorea:** lorea, girasola, brokullio
- Ostoa:** letxuga, porrua, eskarola, aza, espinakoa
- ATSEDENA**

Beste lanak:

Baratzeen aldatu eta ereteko garai nagusia da hau. Hotzarekin sentiberak diren solanazea familiako landareak (tomate, piper, berenjena...) kanpoan lasai aldatu ditzakegu hildabete honetan.

Arto-babarrunak eretiko ere hildabete egokia da.

Sagastian, harjuak (*Carpocapsa* tximeleta) fruta kaltetu ez dezan jarraipena egin. Tximeleta kopurua ugartitzean, *Bacillus Thuringiensis*ekin tratamenduak egiten hasi.

Soropilak erein. Garaiko landare apaingarriak aldatu; geranioak, alegriak, tegetzak, koleoak, begoniak, etab

Orain da udaren jango dugu barazkien landaketa handiaren garaia. Kontutan hartu landutako errotozia eta baita oso garrantzitsuak izaten diren asoziazioak. Eta argi konpetentzia izaten diren belarrek, akolitxatuak mesede egingo digu. Baina kontuz bareekin.

ASTELEHENA

ASTEARTEA


ASTEAZKENA

OSTEGUNA

OSTIRALA

LARUNBATA

IGANDEA

**Beste landak:**

Baratza puri-purian dago honetan. Aldatu ditugun landareen inguruan moztutako belarra, lastoa edo antzeko materialak erabiliz lurra estaltzen probatu dezakegu. "belar txarrak" kontrolatu eta eta ureztatze beharrak gutxituz.

Azari buztan eta osin urekin tratamenduak egiten jarrai dezakegu landareak indartsu egoteko

Hezetasun handia badugu, tomateak mildiutik babesteko tratamendu prebentiboak egiten hastea komeni da

Etxeko leiho edo balkoiari sukaldian erabiltzeko landare usaindunak landatu.

Sasoi honetan indartsu ateratzen dira belarrak. Maiz kendu behar dira gure laboreei konpetentzia ez egiteko

Belarra antzeko garaia negunako erreserba egiteko

Garaio galtzeko, ilberriari moztu.

EREN
Babespean / Negutegian: Baina, babarruna, artoa, kalabaza, kalabazina, pepinoa, erremolotxa gorria, espinaka, azelega, azenorioa, arbia, letxuga, apioa, aza, brokolioa, azalorea, bruselako aza, lonbarda

Babespean / Negutegian: Tomatea, piperra, berenjena, albahaka

LANDATU

Aire librean: Letxuga, tomatea, piperra, albahaka, kalabaza, kalabazina, aza, azalorea, brokolioa, bruselako aza, lonbarda, porrua

Egun egokienak lan bakoitzerako:

Fruitua: tomatea, kalabaza piper, babarrun, hazitarakoak

Sustraiak: azenario, arbi, erremolotxa, patata, tipula

Lorea: lorea, girasola, brokolio

Ostoa: letxuga, porrua, eskarola, aza, espinako

ATSEDENA



GURE ESKU DAGO

Apirilaren 11an izan da, Araman, GURE ESKU DAGO ekimenaren aurkezpena, 30 herritar inguru elkartu garelarik ekimenari sostengu eman asmoz.

GURE ESKU DAGO, Euskal Herrian erabakitze eskubidearen aldeko dinamika da, 2013ko ekainaren 8an hasi zena. Euskaldunon erabakitze eskubidearen alde herri aktibazioa eta atxikimendua lortzea duena hasierako helburu. Ezaugarria: anitza eta parte-hartzailea izatea, tokian tokiko ekimenei aterkia eskainiz.

Jendartean dagoen beharrari abagunea eman, eta honen zilegitasuna bultzatu nahi du dinamikak, erabakitze eskubidea gauzatzuz. Herritarrak abian jarri nahi ditu; Atxikimendu pertsonalak metatu eta antolatuz, aurrera egingo du. Eta honela, gehiengo sozial, sindikal politiko eta instituzionalak landuko dituzte, erabakitze eskubidearen norabidean.

Erabakitze eskubidearen errebindikazioa Euskal Herriko agenda politikoan eta sozialean etengabe egon da. Horrela, eta historiaren arabera, 1931 urtearen bueltan, Aramako udalean onartu zen, lehen-dabizikoz, Euskal herriaren autodeterminazioaren aldeko mozioa.

Bada, 83 urte beranduago, eskubide beraren aldarrian darraigu, urte luze hauetan zapuztua izan baita, etengabean.


GURE ESKU DAGO dinamikak, egunerokotasunean betetzen du bere asmoa, pentsaera eta molde ezberdineko jendartea elkarlanean jarri, erabakitze eskubidearen aldarria landuaz. Baina, Ekainaren 8rako, Ekimen nagusi bat antolatu du Gure Esku Dago dinamikak: Durango eta Iruñea elkartuko dituen gizakatea gauzatzeari, 123 kilometroko, 50.000 lagunek osatuko luketena.

Eta, Aramatarroi ere badagokigu ekainaren 8ko gizakatean gure zatia jartzeari. Horrela, eguerdiko 12:00tatik 12:30tara, 54. kilometroan jarriko gara, Beasaingo Salvatore auzoko industrigunearen inguruan, Beasain, Zaldibi, Alzaga eta Gaintzakoekin batera. Dagoeneko, 29 herritarrek hartu dugu egun horretan bertan egongo garen konpromezua. **ZU ERE ANIMATU!** Jai giroan aldarri hau egiteko. Izen emateko modu ezberdinak daude. Nahi izatera, jarri herriko ardura-dunekin harremanetan.

Bitartean ere, joango gara herrian giroa berotzen

<http://www.gureeskudago.net/>

“2014ko ekainaren 8an Durango eta Iruñea batu nahi ditugu giza kate erraldoi batekin. Eskuz esku bide osoa bete nahi dugu. Horretarako zure parte-hartzea behar dugu, zuretzako leku bat baitugu gordea ekimen erraldoi honetan”



GAZTAINXOTA KULTUR ELKARTEA

Badira egun batzuk, Kultur Elkarte baten sorrera gauzatzeko deialdia egin zutela udaletik, eta herritar talde batek martxoaren 11n udalean burutu zen bileran, berau martxan jartzeko konpromisoa hartu ondoren, lanean dugu jada Gaztaintxota Kultur Elkarte.

Talde hau, nagusiki, herrian urtez-urte errepikatzen diren kultur ekitaldiak dinamizatzeko jaio da (jaiak, aste kulturala, gabonetako ekintzak, etab.), eta, hala nola, jendarte zabalago batera iristea ahalbidetuko duten ekimen berriak ideiatu eta gauzatzeko. Beti ere, herritarren parte hartzea bultzatuz, herriari bizia emateko helburuarekin.

Lehenengo bilera hartan, lan-talde ezberdinak sortzeaz gain, helbide elektroniko bat sortzea izan zen hartu zen erabakietako bat. Hain zuzen ere, herritar orok bere proposamen eta ideiak taldeari helarazteko bitartekoa bilaka dadin.

gaiztantxota@gmail.com

Beraz, denok animatu nahi zaituztegu parte hartzera eta zuen ekarpenak egitera, herrian faltan botatzen dituzuen edo gustura antolatuko zenituzketen jardun berri horiek helaraziz.

Hurrengo boletinetan joango gara elkarren berri izaten... ANIMATU TA PARTE HARTU!!!

BANDERA ESPAINIARRA UDALETXKO BALKOIAN JARTZEKO BETEBEHARRA

Madriletik heldutako aginduen ondorioz eta Carlos Urquijo Estatu Espainoleko Gobernu Ordezkararen eskutik, Euskal Herriko hainbat udal bandera espainola jartzera derrigortuta izaten ari dira.

Aramara ere agindua iritsi da eta laster bandera espainiarra udalean jarri beharrean izango gara. Herritar askok agindu hau inposaketa moduan sentitzen dugu eta honen aurrean ze jarrera hartu eta ze ekintza burutu hausnartu eta eztabaidatzeko, Herri Batzarra deitzeko asmoa dugu.

Informazio gehiago izan ahala jakinaraziko zaizue.
Gurea ikurrina



ERREZETA KUS KUSA BARAZKITXOEKIN

*Anne Otegi, Aramako Toki Alai
jatetxea*



OSAGAIK

500 gr kus-kus

500 ml ura

Gatza eta olioa

Gurin zatitxo bat

Porrua

Azenarioa

Kuiatxoa (kalabazina)

Pipar gorria

PRESTAKETA

Berotu ura, gatzatu eta ondoren olio pixka bat bota.

Pixka bat berotu, sutik atera eta bota kus-kusa. Nahastu apur bat urak estal dezan.

Utzi 10min ura zupatu arte. Askatu sardeska baten laguntzaz. Bota gurina zati txikietan eta nahastu berriz. Gorde.

Moztu barazkiak zati txiki eta ezberdinetan.

Berotu zartagi batean olio apur bat, erregosi bertan barazkiak era hontara: Lehenik azenarioa, gero piperra, porrua eta azkenik kuiatxoa.

Bota bertan kus- kusa eta nahastu ondo berotu arte.

Ipini platerean eta apaindu limoi zati batez.

LEHIAKETA

**Aurki ezazu hizki zopa honetan
zortzi kirolen izenak.
Hitzak norabide guztietan azaltzen
dira.**

A T P I L O T A A E
R L I T E S H I L S
E A G A B E T O A K
A R E H A L E L P U
L O R M K O H A L B
O G I U A N I B I A
B A K E G R A I H L
T N E M O B S K A O
U H T A H E I S D I
F I A H G N D A E A
R K O T E N I S A G
A T L E T I S M O A